

Manu Quintanillak podiuma egin dau oin arte jokaturako ia ziklo-kros lasterketa guztietan

Agredan urri lehenengoaren 29an izan zan lehenengoa eta karrera irabazi eban. Harrezkerotik, Karrantzakoa zemendiaren 2an irabazi arte, tartekatu egin ditu Master 50/60 kategoriako lehen eta bigarren postuak jokaturako ia lasterketa guztietan. **15. orrialdea**



BEGITU 24.454



Mila urte barruko BEGITU irudikatu eta haren azala egin eta banandu eban Arteako kuadrilla batek Arteako jaietan: 24.454 zenbakia. Umorez eginda dago, itxura aldetik sinisgarria da eta BEGITUren esentzia gordetzen daualakoan, gaur egungo irakurle guztiengana hurreratu gura izan dogu Arteako kuadrilla honen lana. Gainera, eurretako hirugaz egon gara, sortzeako prozesuaren barri eta ondorengoak jakiteko. **10. eta 11. orrialdeak**

Arratiako 44. Maratoi Txikian arratiarrak izan ziran garaile



Youness Assehli eta Nerea Pujana igorreztarrek irabazi eben Zeanuritik Igorrerako 11 km-ko lasterketa herrikoa. Mikel Gil ugaoztarrak eta Iñigo Praderak osotu eben podiuma. Andrazkoen podiumean, irabazleaz gainera, beste arratiar bat be egon zan, Onintze Petralanda, hirugarren egin ebana. **15. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratia, Ubide eta Zeberio Palestinaren alde mobilizau ziran

Urri bigarrenaren 15ean, BEGITUren eremuko 10 herrietan egin ziran Gernika-Palestina Herri Ekimenak deitutako elkarretaratze zaratsuak. Guztira, 800 persona inguru batu ziran konzentrazinoetara.

Jarraipena oso nabarmena izan ez bazan be, sindikatuek deitutako lan-ixteak be egin ziran. **7. orrialdea**



UBIDE/ZEANURI

Larreen Mankomunitatearen Zeharkaldia hilaren 8an

Larreen Mankomunitatearen XIII. Zeharkaldia eta Ubide eta Zeanuriko Udalbatzen batzarra egingo da zemendiaren 8an. Zeharkaldiak 12 kilometro inguru ditu eta Ubideko plazatik urtengo da 10:00etan. Udalbatzen batzarra Zeanurin izango da 13:00etan. **7. orrialdea**



IGORRE

Kiñu Gaztetxearen urteurrena ospatuteko kontzertuak egongo dira herrian

Hilaren 15ean Igorren ospatuko da Kiñu Gaztetxearen XII. urteurrena, Rokupa jaialdiagaz. Urteurrena ospatuteko 15:00etan, baba-jana egingo dabe gaztetxean eta arrastian kontzertuak egongo dira Igorreko tabernetan. Holan, 19:00etan, Siriusly taldeak Kuku-ma tabernan eskainiko dau kontzertua; 20:30ean, Kutter taldeak Haizea tabernan; 22:00etan, Barrrik taldeak Axular Herriko Tabernan eta ostan DJ Agata Lagata egongo da. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

DÜSSELDORFEKO TXIBATOA

Eleberri labur honetan irakurleak Karlen ahotik, eta lehen personan, jasoko dauz haren kexak eta beraren bizipenak. Alemana jaiotzez, gizon hau, gaixotasun baten ondorioz jubilau ostean, Espainiako hegoaldera biziten joango da. Haren medikuak hezetasun gitxiago daukan herri batera joateko agindu eutsan, harentzat bertan bizi izatea egokiagoa izango zalakoan, kontuan hartuta birikietan arazoak daukazala.

Baina, aleman honen uste-tan bere auzokide barri guztiek begirune faltea daukie, eta beti potroetatik urtetan jakiena egiten dabe. Berak, oster, Alemanian batez be, legea zorrotz beteten ei dau, eta beti artez eta zuzen joka-tzen dauala uste dau. Uste horrek

bere portaerea baldintzauko dau. Liburuko personaia nagusi hau gizon obsesiboa eta neuro-tikoa da. Egunero, denpora osoa emoten dau argazkiak ateraten, esaterako, kalean txarto aparkauta dagozan kotxeei, manifestaldietan txarto portetan dan jenteari... Os-tean, argazkiok hartu eta polizia-etxera joango da hamaikatxo salaketa ipinten, baita parkeko iturriko uraren ustezko kutsadu-reagaitik be, edota tabernetako larregizko dezibelio kopuruagaitik.

Halanda be, poliziak ezin izango dauz salaketa guztiak kudeatu, ho-rretarako langile nahikorik ez dau-kielako. Horregaitik polizia-etxean pilatuko dira salaketak. Portaera errepikakor horrek poliziaren ha-serrea eragingo dau. Baina po-

liziak ez ezik, herriko alkatea be kezkatuta agertuko da alemanak auzokideakaz istiluak sortzean dauzalako, eta, behin, alkatea bera Karlegaz geldituko da bere ezine-gona adierazoteko. Auzokideak benetan gogaituta dagoz Karlegaz, horregaitik Düsseldorfeko txibatoa deitzean deutsie. Hain da larria egoerea, ze, behin, egunkari ba-ten eta guzti agertuko dira gizonar-en balentriak.

Liburu hau Karlos Linazasorok idatzi dau. Autorea liburu egiteko egiazko persona baten oinarritu da. Gizasemea dan horrek sei ur-tean 30.000 inguru salaketa ipini ebazan, herrian egundoko astra-palea eraginda.

Linazasorok lan oparoak daukaz. Izan be, berrogeta hamar liburu

baino gehiago argitaratu dauz eta ia genero literario guztiak jorratu dauz: olerkigintzea, ipuingintzea, ume eta gazte literatura, narra-tibea... Egilearen beste narrazi-noetan lez, Linazasorok liburu honetan, heriotzaz, bakardadeaz, biolentziaz eta krudeltasunaz idaz-ten dau, modu ironiko, umoretsu, irrazional, esperpentiko eta absur-do baten ikuspegitik.

Düsseldorfeko txibatoa liburu-a, berbakera bizian eta hizkuntza erraz baten idatzita dago. Liburuko hogeta bat kapituluak gustura irakurriko dozuz.



Karlos Linazasoro
Düsseldorfeko txibatoa
Erein, 2025
104 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 3tik 9ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (1-7)

Zemendiaren 10etik 16ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (8-14)

Zemendiaren 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. (15-21)
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 06:45ean eta

08:45ean urteten dau eta Otxandiokoak

16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:15ean

urteten dau.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:30ean urteten dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 15:15ean eta

16:15ean urteten dau eta Otxandiokoak

10:30ean.

Zapatuetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

eta Otxandiokoak 10:30ean.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketee:** Garbikuzi enpresa (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Urko Iurrebaso (Arantzazu, Areatza eta Artea) Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

...Son mis amig@s...

Eta oin... Nork esango dau zelan egin jaietako paella txapelduna? Nork eroango gaitu Gorbeia altxorak ezetuten? Nork egingo dau gisaurako saldea? Nor batuko da familia alkatereagaz Turroi eguna, txitxi-burduntzi edo orientazio proba antolatutako? Nork egingo deus bultza, El Drogas kontzertuan moletetan gaituanari? Nork ipiniko dau herri guztia martxan, mendia erdigunean ipinita? Nork lagunduko deute bizikleta entreno bat egitera txirindulari alkatereko gazteei? Eta Arratia Raid? Nork eroango dau udako egun beronenetan, barruko kamisetak? Nork erakutsiko deus irribarre berezi hori? Nork lagunduko dau faja jarrita daukala Areatza Musik and Beer-en? Nork egingo dau txosnea Lamino mendi taldeagaz eta kudrileagaz? Nork lagunduko dau Upo Galapen-en? Nork egingo dau zerrenda bat jaietako moztar egunean parte hartzeako? Nork eroango dau furgonetea gure astegoen urtekeretan? Nori galdetuko deusagu, autokarabaneetan zeozer gertatzen jakunean? Nork egingo dauz 3 litro salda mendi urtekeretan hotzik ez pasetako? Nork egingo deusku txistu etxe azpitik pasakeran? Nor arituko da Parketxeokaz alkarlanean? Nork antolatuko dauz Pirinioetako eta Picos-etako urtekerak? Nork egingo deusku berba zintzo-

tasunez betetako begi eder horrekaz? Nor joango da jai batzordeko batzarretara? Nork batuko dau familia osoa? Eta gu? Nork jarriko dau Athletic-eko peñagaz batera mendiko postontziak? Nork zabalduko deusku bere etxeko ateak pizza bat afaltzeko edota tragu luze bat hartzeako? Nork euki dau, Zaldibarreko personarik onena gure laguna izatearen "errua"? Nor egongo da gure ondoan, zeozer behar dogunean? Nork emongo dau bere denporea, beste persona batzuk ondo pasetako dana antolatzen? Nor egongo da hilebete jarraian, Areatzako marxa deskantsu barik prestatzen? Nork jarraituko dau, EHko "pasarratos"-en prezioak konparetan? Nork esango dauz gauzak argi eta garbi? Nor izango da guretzako aita/bikote/ seme eredu? Nor egongo da edozertarako laguntza eskaintzen? Nogaz joango gara Gatibuko azken kontzertura? Nor izango da beti bere lagunen laguna? ...eta oin parrandan gagozanean, nork eskatuko dau Amaral-en *Son mis amigos*?

Egin dozun guztia baino hutsune handiagoa itxi dozu gure barruetan. Eskerrik asko Xabi.

ZURE KUADRILLEA

Biba zu, Xabi

Dream Theater taldearen *The Spirit Carries On* abestiaren letrak dinoan modura:

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: beginu@beginu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Kafrangak talde feministea

Arteako talde feministea gara, herrigintza feminismotik eta euskeraz egiteko asmoagaz jaino ginan oin hamar bat urte. Iraina ikur bihurtuz Kafrangak hartu genduan izena. Eretxi propioa daukan andrea, bere ustea ozen eta irmo adierazoten dauana, kafrangea ei da. Askatasuna ostuten deuskun mendeetako estigmatizazioa urratu gura dogu, agenda feministea erdigunean ipini, ertzetatik bazterrak astinduz. Garaipenetako bat herrian espazio propio bat lortzea izan zan, Arteako andren gela. Informazio gehiago gura badozu, idatzi kafrangak@gmail.com helbidera. Izan Kafranga!

Nire heriotzea bihar izan ezker, *If I die tomorrow* lasai nago, hemendik joakeran *I'd be all right* nire espirituak bizirik segiduten dauala *because I believe, that after we're gone* sinisten dodalako *The spirit carries on*

Beraz lasai egon Xabi, hau be lortu dozu-ta... Zure azken arnasearen indarrak, Areatzako herria isildu dau, penaz eta tristuraz lainotu dau gure herria eta bertako herritarrak hustu eta saminez bete ditu. Asko gara oindino, zuon Bekokaleko etxe azpitik pasakeran zu balkoian agertzea espero dogunok, edo aurrerago begiratu eta Zubizarako kantoitik zure figura, ortuko produktuakaz betetako otzara bat eskuetan dauana, datorrela imajinetan dogunok, edota bizikleta bategaz kurutzatzean, zu ikusten zaitugula irudikatzen dogunok... eta zer esanik ez, mendian bueltaka gabizanean edota Pirinioetan edo Pikosetik ibiltzean, edota jaietan... Bertan, zure gerizpea eta irudia, alde guztietatik agertuko jaku.

Zure indarra, azken pedalkadea emondako lekuan be agertuko da, leku ezin hobea, Gorbeia, Lekanda eta Aldamin bista-bistan daukazuzala...

Guretzat ahaztuezin bilakatu zara, eta gure lana ointxe bertan, bihotzetan daukagun tristurea eta tripan igarten dogun ezinegona, gogorapen ona bihurtzea izango da. Baina honetarako denporeak bere lana egin beharko dau. Agian, alderantzizko irakurketa egiteak be lagunduko deusku, hau da, zutaz disfrutetako aukerea izan dogula pentseteak, beharbada, oin bizi dogun tristureak merezidu izan dauala, zu ezetu ez izateak, gure bizitza tristeago izatea suposatuko leukelako.

Mila esker Nagore, Magali eta Peru, zuon bikote eta aita gugaz konpartidutearren eta berak gura izan bezalako bizitza aurrera eroaten bultzatzearren. Ondo dakigu guk azken honek, etxean suposatzen dauan lana eta esfortzua...

Zorionak Gotzone eta Juan Cruz, hain printzipio eta balore sendoz betetako gizon zatia hezi eta haztearren...

Eta mila esker zuri, Xabi, laburregi izan dan bizi honetan gugaz tartetxo bat konpartidutearren, benetako plazerra...

Lehen esandako moduan ahaztuezin bihurtu zara, ezin izango zaitugu ahaztu, ezinezkoa dan moduan eguzkiak emoten dauan bero eta argia itzaltzea.

Gero arte lagun, besarkada beroa...

Biba zu, Xabi, edo hobeto esanda, Julenek esandako moduan, biba Laminoko Ultraheroia.

AMAI AASTONDOA ETA ASIER GARCIA

ERETXIA



BEATRIZ AZPIRI REMENTERIA

Jubiladua

Agurra

Urrigarrenaren 29an erretiroa hartu neban, nire bizitza laboralaren atzen 18 urte eta 10 hilebete BEGITU lan egin ondoren. Urte honeetan guztietan bizimodua bertatik aterateaz gainera, garrantzia handiko hartu-emonia eregiteko ladiriluren bat edo beste ipini dau BEGITU eta nik be aletxo ipiniko neban gaur BEGITU dan honetan. Izan be, urte askoan kazetari bakarra izanda, bere inudea izan banintz lege elikatu dotala sentiduten dot.

Oin BEGITU hazi egin da eta ni zaharra naz. Eta heldu da joateko momentua; hau da, kazetari gazteei lekua ixteko momentua. Espero dot, nik ikusiko ez dodan arren, oin nire erreleboa hartzean dauan kazetaria jubila arte eta gehiago irautea BEGITU. Mila urte, Arteako kuadrilla batek irudikatu lege, 24.454 zenbakiraino, gitixienez.

Baina agur hau, agur erdia baino ez da; ez naz guztiz joango. Kazetaritza itxi arren, ez dot Arratia itxiko, hemen biziten jarraituko dot. Ze, Arratian topau dot nire lekua eta heriotzearen aurreko biziari hau, arrain eta txori ugarien bizileku dan ur gardenetako erreka honen ondoan bizi gura dot, arbolen pean eta Arratiako jentegaz.

Izan be, komunitate honen parte izaten jarraitu gura dot. Bai. Oindino ipiniko dodaz gorputz eskas eta zahar hau eta nire buru gogorra arratiarrakaz batera hainbat kausaren aldeko burrukan; injustizien kontrako grinak ez daualako erretirorik hartzean. Momentuz ez, behintzat. Eta ez

bakarrik burrukan, Arratiako jentearen ondoan be egin gura dot barre eta jantzan; baita momentu zoriontsuak konpartidu be atzen hamazortzi urte honeetan egin dodan lege.

Ilusioz hartzean dot etapa barria. Konziente naz, erretiroa hartzeak egiten zaituala gizartean zahar. Ofizial egiten dau zahartzaroan sartu zarala, nahiz eta askotan norberak lehenagotik jakin, modu fisikoan eta biologikoan lehenago igartzen hasita egoten dalako. Hata guzti be, penarik ez: norberaren denporearen jaube izatea premia bat da edade honetan, eta erretiroak, kalidadea, eta horregaz bizipoza ekarri ahal deusaz bizitzari. Edade honetan, gorputzak (eta buruak) gauzak patxadaz egiteko eskatzen dau, eta lan-munduak eta sasoi honetako bizimoduak barriz, dana arin egiteko. Munduari kasurik be ez egitea, eta gorputzari entzutea gauza handia da.

Bigarren aukeren urrezko sasoi be bada jubilazioa. Osasunak itxi ezker, lehenago egiteko aukerarik izan ez dozun gauzak ikasteko edo zaletasunak garatuteko sasoi izan daiteke: gustuko ikasketak egin, bizikletan edo uger egiten ikasi, astronomia, botanika, matematikak edo sukaldaritza trebatu eta sakondu... Baita mendira joan, bidaiak egin edo irakurten edo musikea entzuten egoteko be, edo pelikula bat ikusten... mundua zabaldu egiten da!

Edota ezer egin barik egoteko, kontenplazioari edo *Dolce far niente*-ri emona. Benetan gozoa da-ta ezer ez egitea, eta denporea luzatu eta astiroago joanarazoteko gaitasuna dauka.

Horregaitik guztiagaitik, BEGITU-ri agur eta eskerrik asko esatea besterik ez jata geratzen. Agur eta eskerrik asko lankideei eta BEGITU posible egiten daben guztiei. Agur, baina adiorik ez, BEGITU-ren irakurlea izango naz-ta hemendik aurrera.



LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Linguizismoaren aurrean sensibilizazioa (II)

Euskaldunok ondo daki-gu zer dan linguizismoa, mendeetan neurriak hartu izan dira-ta Espainian eta Frantzian linguizidioa eragiteko, gure hizkuntzea heriotzera eroateko. Oin be, Vox-en eta hainbat epaileren jarrera linguizismoaren eragile aktibotzat jo geinke; eta kontuan izanik Kontseiluak garagarriaren 24rako EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean egiteko deitu eban agerraldian alderdi politiko biren ordezkariak baino ez zirala egon, gainerako alderdi politikoen jarrera linguizismoaren eragile pasibotzat jo geinke.

Zer egin geinke horren aurrean? Errazakeriaren, sexukeriaren eta keria guztien aurrean egiten dogun moduan populazioa sensibilizau eta formazioa emon. Hizkuntz normalizazioa jakintza arloa izan beharko litzateke gure eskoletan. Horretarako, Irakasle eskoletatik eta Filologia fakulta-

deetatik hasi beharko geunke, ez sinistekoa da-ta gai honeri buruz jasoten daben formazio eskasa.

Populazioa sensibilizau egin behar da euskereari buruz ezeze, munduko hizkuntzen dibersidadeari buruz be; dibersidade biologikoagaz egiten dogun letxe. Populazioa esaten dodanean, euskerearen eremutik harago dagoan jentea be kontuan hartzean dot, ezinbestean; gizarte osoaren bultzadea behar da-ta aniztasuna eta errespetua sustatzeko eta babesteko. Ailegau egin beharko dogu, beraz, erdaldunengana be izaki bizidunen aniztasuna babestu behar dan moduan, hizkuntzen aniztasuna be babesteko mezuagaz. Bestela, jai daukagu!

ZERTZEAN



ANDONI SOLOZABAL

Gaia jarrita: "Bakotxa berera"



1

Bakoitza bere bizimoduaz aspertu xamar gabiltza eta albokoari begira pasetan dogu bizitza besteen saskia konpontzeko beti daukagu zumitza kanpotik barniz ugari eta barrutik harra ta sitsa.

3

Ikaragarri gustatzen zaigu konpontzea besteena eta kanpotik begiratuta oso argi dago dena askoz hobea baita, nola ez geuk eingo genukeena besten bizitzan errez sartzen da eskatu barik baimena.

2

Inoiz ez gaude kontentu nahiz ta danetik daukagun hemen ta beti gaude inbidiatan aberatsak izan arren aho haundia kritikaz bete eta gu ze onak garen auzokoaren akatsen bila ea txarto zer ein daben.

4

Badakiguzen pare bat gauza nahiko neukez gogoratu astiro bizi, zabala izan jakin barik ez juzkatu maite dozuna ondo zaindu ta pazientziatz jokatu beste guztiak bakean itxi ta etxekoaz gozatu.

BEGI TXINDORRA

Kalabazen sasoia heldu da, egun labur eta gau luzekoak, eta aurrera doa udagoiena, gero eta neguago bihurtuz. Zemendia hasi aurretik, urri bigarrenaren 31n Gau Baltza ospatu genduan; bildurra, gauari eta heriotzari bildurra, barre giroan eta komunitadetan uxatzeko. Baina gaua, indarra hartzean joango da hurrengo aste eta hileetan, lehioaren bestekaldean eta geure buruetan.

Iluntasunak prensa txarra dauka. Iluna eta txarra sinonimotzat hartzean dira eta inork ez dau gura: urte ilunak edo sasoi ilunak, sasoi txarrak dira. Ez dago azaldu beharrik, danok dakigu zer dira-ta, albigetia entzun baino ez dago.

Ha-ta guzti be, beti dago argi izpiren bat, ilargia edo izarren argia gauean edo antolakuntza eta disidentzia sasoi ilunetan. Eta denporatxo baten ostean, duda barik, egun-argia zabalduko da. Ezer ez da betiko.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



★ BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA ★ beeredariak@gmail.com





agoa
hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

**Ortodontzia
Implanteak
Estetika**

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgintza Zentrua: 900
R.P.S. 31/06

ZEANURI

Zeanuriko Udala ke detektagailuak bananduten dabil etxean tximinia edo txapea daukien herritarren artean

Erredakzinoa

Zemendiaren 15era arte jaso daitezke ke detektagailuak udal bulegoetan, debalde. Lehenengo txandarako 150 detektagailu ditu Udalak baina nahikoak ez balira, itxaron zerrendan izena emoten dabenentzat be ekartekoak dira. Segurtasuna hobetuteko kanpain hau, urigintza arloko diru partideagaz ordainduko da.

Gailuen instalazinoa norberak egin behar dau baina erraza dala dinoe Udaletik eta Udalak emongo dauzala nondik norakoak. "Baten batek ezintasuna eukiko baleu, Udalak lagunduko deuto brigadakoen bitartez" azaldu deuto BEGITURI Arkaitz Estiballes zinegotziak.

nekoak dirala, euren segurtasuna bermatzeko pentsau genduan ke detektagailuak banandutea".

Bizitzak eta etxebizitzak

Ke detektagailuak jasoteko ezinbesteko baldintza da Zeanurin errolatuta egotea. Lehentasuna, lehen etxebizitza legez erabiltzen diran baserri edo etxeek daukie. "Herrian badago jentea pisuan bizi dana eta gurasoen baserria mantendutuen dabena. Horreei bigarren txandara arte itxaroteko eskatu deutsegu, zemendiaren

10etik aurrera joateko udaletxera, ze bertan bizi danari emon gura deutsagu lehentasuna".

Ha-ta guzti be, horreentzat be egongo dira ke detektagailuak, baserririk erre ez daiten. "Baserri batek su hartzean dauanean, seguruagaz arazoak egon daitezke eta normalean baserriak galtzean diranean, ez dira berreregiten. Orduan baserria bera be zaindu gura dogu. Planteamentua da, lehenengotik personak baina baita baserriak be" dino zinegotziak.



IGORRE

12 urte okupazinotik, Kiñuk Rokupa ospatuko dau Igorren

Erredakzinoa

Hilaren 15ean Igorren ospatuko da Kiñu Gaztetxearen XII. urterrena, Rokupa jaialdiagaz. Urtero legezt, ekimen herrikoi eta autogestionau honek musikea, lagunartea eta aldarrikapena batuko ditu egun osoan.

Eguna 15:00etan hasiko da baba-janagaz gaztetxean bertan. Bazkarirako txartelak Axular eta Kukuma tabernetan dagoz salgai zemendiaren 13ra arte, beste menuren bat behar izan ezkerotxartela erosterakoan adierazo behar da.

Musika programea 19:00etan abiatuko da Kukuma tabernan, Zornotzako Siriusly taldeak bere Black Hole disko barria aurkeztuko dau. Handik Olabarriara egingo dabe saltu, eta 20:30ean Gernikako Kutter taldeak girotuko dau iluntzea Haizea tabernan

bere rock indartsu eta zuzenagaz.

Gaua biribiltzeko, 22:00etan, Barrrik taldeak joko dau Axular Herriko Tabernan, Malaga, Bilbo, Audio eta Orozko arteko laukote energetikoa. Agata Lagata musika jartzaile

billaroztarra izango da ostein eta "eperdia mobidu arazoko deusku" egunari amaieraa emoteko.

Musikea, herrigintzea eta jai giroa batuko dira Kiñu Gaztetxearen 12. urteurrenean Igorren.



UBIDE

Pediatrearenera Gasteizera joan behar dabe Ubidekoek



Erredakzinoa

Legution izaten dabe pediatrea baina Legutioko pediatreak aldatu dau bere lanlekua eta, han beste bat ipini arte, Salburuara eroan behar dabez umeak Ubidekoek.

Ubide Bizkaian egon arren, Arabako mugan dago eta Arabako ESiri jagoko. Arazoa da, Osakidetza, atzen EPEaren eta 2020, 2021 eta 2022koen ondoren, lanpostuak esleitzeko prozesuetan dagoala, eta Legution egoan medikuak beste zentro baten lor-

tu dauala lanpostua. Horregaitik, "pazientzia" eskatzen deutsee familiei Arabako ESitik, fase hau amaitutakoan, "lanpostu hori beteko dalakoan".

Ubideko osasun zentroa

Ubiden osasun zentroa dago astelehenetik barikura, baina aspaldi honetan egun batzuk bakarrik egoten da zabalik, hiru mediku bajaran dagozalako eta ez dagoalako ordezkorik. Udalak batzarra eskatu dau Arabako ESiko zuzendariagaz eta erantzun baten zain dago.

BEDIA

San Martin eguna ospatuteko ekintzak Bedian

Erredakzinoa

Sasoi baten txarria hilteko eguna izaten zan zemendiaren 11, San Martin eguna, eta egun, leku askotan, San Martin izenpeko ermiten inguruetan batez be, txarriak jaten ospatuten dabe egun hau.

Horretarako aukerera egongo da Bedian San Martin eguneko aurreko zapatuan. Izan be, txitxi-burduntzia prestatu dabe beste ekintza batzuen artean jaia ospatuteko. Mezea, Ereñoko San Martin ermitan izango da.

Zemendiak 8, zapatua

09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren oroimenez. Bediako plaza-tik urtenda.

10:30etik, 12:00etara, txitxi-burduntzia, Bediako gazte trikitilariak girotuta.

12:00etan, mezea San Martinen ermitan.

12:45ean, bola-jokoa eta zozketea. Udalak eta Ganguren Mendi taldeak antolatuta. Parte hartzaile baktoxari zozketarako zenbaki bat emongo jako.



ARRATIA

Elkarretaratzea egin zan Igorren Zarauzko hilketa matxistea salatuteko

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 20an, Arratiako Mugimendu Feministak deituta, Zarautzen izandako hilketa matxistea salatu eta hildako andreaken hurrekoei alkartasuna adierazoteko elkarretaratzea egin zan. Aurreko eguazten gauean, 47 urteko gizon batek 53 urteko andra bat hil egin eban Zarautzen. Hurrengo egunean atxilotu eben gizona. Domekan, epaileak espetxeratzeko agindua emon eban. Hau izan da, indarkeria matxistek 2025ean Euskal Herrian eraildako 6. andrea.

Bertaratutakoek, euren haserrea adierazo eta hilketa honeek ez dirala puntualak, egiturazkoak baino gogoratu eben elkarretaratzean irakurritako komunikaduan. Horregaz amaituteko, herritarrei antolatuteko eta erakundeei neu-

rri eraginkorrak eskatu eutseezan bildutakoek. "Antojauta, kantsaut eta haserre gagoz; batez be haserre erakundeek jagokien ardurea hartzean ez dabelako, nahikorik egiten ez dabelako, egunak joan egunak etorri matxismo eraile honeri erantzunik emoten ez jakolako.

Erailketa matxistak ez dira kasu isolatuak, hau ez da ezbehar puntual bat izan. Antolaketa sozial oso batek baimentzen dau indarkeria adierazpen txikienetik lazgarrienera. Indarkeria matxistea arazo estrukturala da, egituran dauana; lehen mailako arazo sozial eta politikotzat hartua izan daiten exijitzen dogu. Horretarako inbersino eta neurri errealak hartu dagiezala". Bizitzen aldeko apustua, antolatu, saretu eta alkarregaz burrukan eginda gauzatuko dala be adierazo eben.



LEMOA

Nekazaritzako elikagaien azokea zemendiaren 9an izango da Arlonagusia plazan

Erredakzinoa

Lemoako Udalak XXVI. nekazaritzako elikagaien azokea antolatu dau zemendiaren 9rako, 10:00etatik aurrera, Arlonagusia plazan. Bertako produktuak eta lehen sektorea bultzatzeko ekimena da.

Urtero legez, Lemoako azokeak udagoieneko baserriko produktuak eskainiko dauz ekoizleen salmahaietan zuzenean. Aukerea izango da bertoko produktuak erosteko eta ekoizleei zuzenean laguntzeko.

Azokan topau ahal izango dira, besteak beste, barazkiak, ezti, ogia, euskal pastela, gozoak eta gaztaia.

Goizeko azokeaz gainera, 13:00etan Mendieta Herri Kirol Taldeak azkolarien erakustaldia antolatu dau.

XXVI.
NEKAZARITZAKO
elkagaien
AZOKA



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hilaren 13ra arte eskatu daitekez Errigorako saskiak

Erredakzinoa

Nafarroako produktuez osotako hiru otzara erosi daitekez: Beltza, Berdea eta Gorria ize-nekoak, 60, 65 eta 75 euroko prezioan, hurrengo hurrengo. Bakotxean, dozena bat inguru nafar produktu dago. Saskien balioaren % 25 Nafarroako erdi edo hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da.

Eskaerak errigora.eus webgunean egin daitekez; baita, kanpainako eskuorrian dagoan galdetegia beteta eta herriko ar-

duradunari emonda. Zemendiaren amaieran edo abenduaren hasieran jasoko ditue eskatzailak produktuak herrian.

Euskarari puzka

Udagoienean *Euskarari puzka* kanpaina egiten dau Errigora herri ekimenak. Nafarroa hegoaldeko produktuz osotutako otzarak "milaka etxetara" eroaten ditue kanpaina honetan. Kanpaina honegaz, auzolanari esker, Nafarroako euskalgintzeari ekarpen ekonomiko garrantzitsua egiten jako.



ARTEA

Ideak, proposamenak eta ikuspegiak jasoteko tailer bat antolatu dau Udalak

Erredakzinoa

Zemendiaren 11n, 19:00etan, Kultur Etxean izango da tailer parte-hartzailea. Bertan hiru proiektu landuko dira: Plazea barrero pentsetea eta umeen parkea lekuz aldatzea, Astuibekoko kale zatia norabide bakarrekoea egitea eta eskolea eta medikuetea aurreko bidea seguruago egitea. Datorren urtean horreetako bat gauzatuko da.

Arteko Udalaren arabera, etorkizuneko Arte guztien artean eregitzea dauka helburu tailerrak. "Atzen urteotako ekarpen eta

proposamen askoren bidez sortu dira gaur egun mahai gainean dagozan ideak. Horreek oinarri hartuta, Udalak hiru proiektu estrategiko ipini gura ditu martxan, herritar guztiak batera landuteko. Horregaitik, tailer parte-hartzaile irekiak egingo dira: idea, proposamen eta ikuspegiak jasoteko" jakin arazo dabe udal webgunean.

Proiektu honek kostu finkoa daukie eta dirulaguntzen menpe dagoz eta horrek esan gura dau urte bakotxean proiektu bakarra gauzatu ahal izango dala, finantzaketa publikoaren arabera.

AREATZA

Areatzako Aldamin taberna alokairuan hartzeako pleguak eskuragarri dagoz

Erredakzinoa

Areatzako Udalak urte birako kontratu luzagarria eskaintzen dau ugerlekuetako taberna kudeatu gura dauanarentzako.

Udala, ugerlekuetako Aldamin taberna nork kudeatu topetan dabil eta eskuragarri ipini ditu kontratazinorako pleguak. Urte birako kontratua eskaintzen da, beste urte bat luzatu daitekena. Hileroko errentearen gitxieneko eskaintzea 130 eurokoa izango da lehenengo urtean eta 250 eurokoa bigarrenetik aurrera; argindar, ur, gas, berogailu eta bestelako gastuak kenduta. Dokumentazinoa aurkezteko epea hilaren 21era artekoa da udaletxean eta 23ra artekoa plataformaren bitartez egin ezker. Zehetasun guztiak topau daitekez <https://labur.eus/Aldaminjatetxea> helbidean edo Areatzako udaletxean.

Taberna kudeatuteko interesa daben persona edo entitateek proiektuaren gaineko memoria bat aurkeztu behar dabe eta horretan oinarrituko da Areatzako Udala, lizitazinorako. Bertan puntuauko dira lokalean egin gura diran barritzenak, eskainiko diran zerbitzuak, profesionalen ezaugarriak eta esperientzia, besteak beste.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratiak, Ubidek eta Zeberio­k adierazo eutsien Palestinari alkartasuna mobilizazino jentetsuakaz

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 15ean, Israel Gazan egiten dabilen genozidioa-gaz amaituteko eskatuteko, Arratia, Ubide eta Zeberio batu egin ziran egun horretarako egozan deituta lan-ixte eta elkarretartzetan. Euskal Herrian legez, gure eremuan be, Palestinari alkartasuna adierazoteko oin arte egin diran mobilizazino­rik handiena izan zan.

Lan-ixteei jagokienean, Zortzi sindikatuk, LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, CGT, Etxalde eta Hiruk, hiru orduko lan-ixteetarako deialdia egin eben; ELAk bere alde­tik egin eban 4 orduko lan-ixtea. Hezkuntzan, LABek eta Steilasek egun osoko greba deitu eben. Arratian jarraipena handia izan zan, oin arteko handiena eta hau nabarmena izan zan batez be arrastiko elkarretartzetan.

Holan, Hezkuntzan, BEGITU­ri datua emon deutsien eskoletan –erdiak–, grebaren jarraipena Igo­rreko eskolako % 55 eta Arteako eskolako % 100 artean egon zan. Institutuan, egun osoko greba irakasleen % 22k egin eben baina beste % 50 inguruk hiru orduko lan-ixtea eta beraz, guztira, % 72 inguruk egin eben geldialdia Pa­lestinaren alde.

Industria eta zerbitzuetan be

egon ziran lan-ixteak. Esate bate­rako, Cementos Lemonak zarratu egin ebala jakinarazo deutso BEGITU­ri LABek eta zerbitzuei jagokienean be, Lemoako kiroldegiak, esate baterako be zarratu ebazala ateak hiru orduz.

Lanlekuak itxita, batzuek Hego Euskal Herriko uriburu­etan egon­dako manifestazino masiboetan parte hartu eben. LAB sindika­tua­ren arabera, 110.000 lagunek hartu eben parte manifestazino honeetan.

Elkarretaratzeak

Gernika-Palestina Herri Ekime­nak deitutako elkarretaratze za­ratatsuak, BEGITU­ren eremuko 10 herrietan egin ziran. Guztira, 800 persona inguru. Arantzazu­n, 55 lagun inguru batu ziran eta elkarretaratzeaz gainera, manifes­tazinoa egin eben herri eta erre­pidean zehar pankarta atzean eta eltzeak joten. Areatzan 125 la­gun inguru batu ziran; Artean, 80 bat lagun; Bedian, 22; Diman, 110 inguru; Igorren, 80 bat; Lemoan, 120 inguru; Ubiden, 50 inguru; Zeanurin 70 bat lagun eta Zebe­rion, 80 inguru.

Protesta honeen helburua, Israel Gazan egiten dabilen ge­nozidioa salatu eta nazinoarteari Israelen kontrako presinoa han­ditzeko eskatzea zan.



Arteako konzentrazinoa goian eta Arantzazukoa behean.

UBIDE/ZEANURI

Ubidetik Zeanurirainoko Larreen Mankomunitatearen XIII. Zeharkaldia hilaren 8an izango da

Erredakzinoa

Zeharkaldiaren ostean Ubide eta Zeanuriko udalbatzen batzarra be egingo da Zeanuriko udaletxean. Aurten, zeharkaldia Ubidetik Zea­nurira izango da.

Zemendiaren 8an, zapatuan, oin dala 120 urte baino gehiago­tik urtero errepikatzen dabenez, Zeanuriko eta Ubideko Udalek larreen mankomunidadeko kon­tuen kitapena egingo dabe eta "bakea" barritauko dabe. Batzar hau aprobetxauz, Zeanuri-Ubide Larreen Mankomunitatearen XIII. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskainiko da. "Oin dala gizaldi bat baino gehiagotik Zeanuriko eta Ubideko Udalak alkartu egiten dira, urte baten udaletxe baten eta hurrengoan bestean. Hasike­ran bide erdian, Barazarko men­datean biltzean ziran. Han, uda­lerri bakotxean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkeztu eta kontuak egiten ditue. Urtero errepikatzen dan ohiturea eta be­tebeharra da. Dirudianez, batzar horren zergaitia, bazka-larreen aprobetxamentuaren inguruan

udalerri biek gizaldietan, gitxienez XVI. gizalditik, izan dabezan aile­goei amaiera emoteko adostu­tako akordioa da" azalduten dau Jon Urutxurtu historialariak.

Hamabi kilometroko zeharkaldia

Larreen mankomunidadearen batzarra aprobetxauz, Zeanuri eta Ubideko Udalakaz batera, Joko Alai, Suzien Mendi Kluba, Amexier eta Ubidestroi alkarteek Zeanuritik Ubidera doan zeharkaldia anto­latzen dabe, urte baten Ubidetik urtenda eta hurrengoan Zeanu­ritik. Aurten, Ubideko plazatik izango da urtekerea 10:00etan. 13:00etan, atzen 120 urteotan legez, Zeanuriko eta Ubideko udalbatzak batzartu egingo dira Zeanuriko udaletxean kontuak egiteko eta gura dauanak 10 bat minu­tu irauten dauan batzarrean egoteko aukerea eukiko dau. Ibi­laldia beteten dabenen artean, oin dala 100 urte udalbatza biek sinatu eben idazkiaren faksimila banatuko da eta Gorbeialdek es­kainita Zeanuriko tabernetan ko­pau bat (pintxo-potea) hartzeako



txartela emongo jakie.

Antolakuntzeak autobus zer­bitzua be ipiniko dau Zeanuritik Ubidera, 09:00etan, abiapun­tura joateko, eta 14:00etan, zeharkaldia eta batzarra amaitu­takoan Ubidera bueltau beharra daukienentzat.

ARRATIA

Errota Fundazioaren Arratiako III. Enplegu Azokara online be bialdu ahal izango da kurrikuluma

Abenduaren 12an, Arratiako III. Enplegu Azoka egingo da Igorreko Kultur Etxean, Errota Fundazioak antolatuta.



Erredakzinoa

Aurten kurrikulumak online bial­tzeko aukerea dago, egun horre­tan egon ezin diranei be Enplegu Azokan parte hartzeako aukerea emoteko.

Azokearen barrikuntza na-

gusia da azoka herrira ate­ratea, enpresak herritarrei hurreratzeko eta herritarrek parte hartzeako. Ekimen honen hel­burua "eskualdeko enpresak, merkataritza-guneak eta zahar egoitzak herritarraz eta lan bila dabilzan personakaz konektetea,

enplegua eta talentua batzeako gune bat sortuz" dala dinoe Errotatik. "Ekimen honen bidez enpresei ikusgarritasuna emon eta eskualdeko enplegu aukerak sustatu gura dira, gazteak eta lanbakoak lan mundura hurrera­tuz eta lana aldatu gura dab­en personek aukerea izan dagien".

Enpresa baktzak bere ma­haia izango dau, eta bertara hu­rreratz­en diran personek euren kurrikuluma aurkezteaz gainera, enpresea eta bere jarduer­ea eze­tuteko aukerea izango dabe. Gai­nera, aurten lehen aldiz, kurriku­luma online bialtzeko aukerea be eskainiko da, bertaratu ezin dab­en personek be parte hartu ahal izan dagien. Azokea irekia eta doban da.

ARRATIA

Mobikorraren auziaren gainerako familientzako berbaldi tailerra antolatu dau Altxa Burua Arratiak

Erredakzinoa

Telmo Lazkanok gidatuta, saio bi izango ditu tailerrak, biak 18:00etatik 20:00etara Igorreko Lasarte Aretxean. Lehenengoa, hilaren 3an izango da *Sare sozia- len bihotzean: zer dugu benetan eskuarte- an?* izenpean eta bigarrena, hilaren 10ean, *Praktikan nola landu gai hau etxean?* ita- nari erantzun gura deusana.

Telmo Lazkano Muga, hezkun- tza eta osasun digitalaren arloan diharduan aholkulari eta ikertzaile da. Ingurune digital seguruak eta osasun mentala sustatzeko proiektuetan parte hartzean dau, eta *Nerabeen garrasia* saiakeraren egilekidea da. 2022-2024 aldian Eusko Jaurlaritzaren Adikzioen arloko Praktika Onenaren Saria jaso eban.



Altxa Burua

Altxa Burua mobimentua, ume eta gazteek egiten dabene telefono mobikorraren eta pantailen erabilereagaz kezkatutako taldeek osotuten dabe eta teknologiaren erabilera egokia bilatzen dabe.

Xabier Iturriagaren oroimenez

Erredakzinoa

Lamino Kirol Klubeko bihotza eta mendiak maite zituan laguna.

Xabier Iturriaga Murelaga, Lamino Kirol Klubeko lehen- dakaria eta Areatzako men- dizale ezaguna joan jaku, gazte, gazteegi.

Xabi ez zan atzean geratzen zan horreetakoa: beti beha- rean, buru-belarri eta gogotsu, antolakuntzan, ibilaldi eta eki- taldien atzean, gauzak ondo atera daitezkan. Langile fina zan.

Urte luzez izan da Lami- noko arima eta motorra, taldearen indarra eta men- diaren lagun zintzoa. BEGI- turentzat be iturri eta lagun leiala izan da; beti prest, azken orduko argazkia edo datua bidaltzeko, edo propo- samen barri bat kontetako.

Mendia maite eban, baina batez be jentea eta herria maite ebazan. Horregaitik, hutsune handia itxi dau Areatzan eta Arratia osoan.

Baina bere izena eta bere

egiteko modua gudan geratuko dira, harri artean, bideetan, eta gure oroimenaren isilean.

Eskerrik asko, Xabi, egin- dako guztiagaitik, erakutsi-

tako gogoagaitik eta itxi do- zun errastu sakonagaitik.

BEGITUTIK gure dolumin eta besarkadarik beroena, senide, Laminoko kide eta lagunei.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) abenduaren 20ra arte arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A



Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan gaua eta gosaria lagun birentzako.



Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

B

* GARENA

Dimako **Garena** jatetxean **Gurea** menua lagun birentzako.



BEGITU 24.454

24.454

Mila urte barruko BEGITU irudikatu dau umorez Arteako kuadrilla batek eta azala egin eta bananduten ibili zan herriko jaietan. 24.454. zenbakia, 3025 urteko urri lehenengokoaren azala zan. Maketazino bardina erabilia, itxura aldetik aldizkari honen antzekoa da eta idazketa estilo zein bizkaierearen erabilerearen aldetik, imitazino bikaina.

BEGITUK orrialde honeetara ekarri gura izan dau kuadrilla honen BEGITU futuristea, Arratia osoan zabaldu eta galdu ez daiten. Baita esker ona adierazoteko be. Hori dala-ta, kuadrilla horretako Danel Goikoetxea, maketea sortu eban diseinatzaileagaz, Dorleta Garai, Chat GPTak sortutako testuak ondu, euskeratu eta bizkaieratu ebana eta Ane Agirregaz egon da BEGITU, 24.454 zenbakiaren nondik norakoak jakiteko.

Erredakzinoa

Zelan sortu zan mila urte barruko BEGITU bat egiteko idea?

Dorleta Garai: Arteako kuadrilla bat gara, 13-14 lagun. Arteako jaietan, urtero, gai bat ipinten da mozorro gauerako. Horren inguruan jantzi, eta karrozea egiten dogu; desfilea eta playback-a be lotuta egoten dira gaiagaz. Aurtengo gaia denporearen makinea izan zan eta egon ginan pentsetan iraganera joan beharrean, ea zergaitik ez, etorkizunera.

Danel Goikoetxea: Artea eta Arteako kulturea presente euki gura genduan. Eta hasi ginan pentsetan zelangoak izango ziran mila urte barruko jaiak. Perso-naietatik hasi ginan: zeintzuk izan ahal ziran oin presente dagoz-anak, eta etorkizun baten egon ahal ziranak. Personaia bakotxari istorio bat emon gura geuntsan eta hortik ebatzi genduan BEGITU bat egitea lotura bat emoteko.

Maketea bikain dago. Zelan egin zenduen?

Goikoetxea: Udako zenbaki bat hartu neban eredu moduan formatu bardina emoteko. Bisualki BEGITUK daukan itxura hori euki behar eban, baina etorkizuneko izanda, logoa barriztu egin neban apur bat. Koloreari jagokonean, erabilten dozuen arrosa hori mantenidu zan eta etorkizuneko ikutua emoteko pentsau genduan urdina erabiltea. Paperezkoa baino gurago genduan digitala. Hor eztabaida bat sortu zan, batzuek esaten eban paperean izango dala etorkizuna; nik esan neban espero dodala ezetz, baina ez geunkanez aurrekonturik table-tak bananduteko, paperean egin genduan.

Testuak nok egin ebazan?

Goikoetxea: Chat GPTa, mo-

dan dagoan erremintea erabili genduan horretarako. Oinarri bat emon geuntsan, esate baterako, artzain espaziala, eta albiste bat egiteko eskatu. Testuak egiten lagundu euskun. Gero, logikoa dan moduan, geuk euskeratu eta bizkaieratu genduan.

Garai: Saiatu nintzan bizkaieraz egiten eta gero lagunakaz partekatu nebazan testuok, ea zuzenketarik egin behar zan ikusten eben galdetuz.

3025eko Arteako albisteak, Arratia, Ubide, Zeberio eta Mar-tera ailegauko dira! kar, kar, kar.

Goikoetxea: Gura genduan gure mozorroak eukitea erreferente moduan Artea, Arteako historia, Arteako personaiak...

Ane Agirre: Ikutu umoristiko bategaz.

Goikoetxea: Aprobetxau genduan Andren Lehenengo Frontenis Txapelketea zala, sartuteko edo herriko txistulariak beti egon diranak presente...

Garai: Aurten eurak izan dira pregoia bota dabenak.

Goikoetxea: Beste lanbide bat Artean beti oso presente egon dana, artzaintzea da eta hori sartzea be pentsau genduan.

Garai: Eta dana lotzeako BEGITU egon da.

Zelan hartu eban jenteak BEGITU futurista hori?

Agirre: Flipetan. Ez eban espero hau egingo genduanik eta *feed-back*a positiboa izan da. Jenteari pilo bat gustau jako idea. Karrozan, desfilean, kuadrillako bat egon zan BEGITUak bananduten. Eta horrek playbackagaz euki eban loturea.

Garai: Playbackerako alkarrizketa bat egon zan grabauta. Herritar bi, janzkera futuristeagaz agertzen ziran eszenalekuan eta sar-tzean zan BEGITUKO banatzailea.

arratia · ubide · zeberio · marte

begitu

3025eko irailaren 3a
hamaikakortak
www.begitu.eus

24.454

Artzain espaziala, modako lanbide barria

Arratian ia inor ez da horritzen gazteak grabitazio-jantzia jantzen eta satellite eta asteroida artean txandaka ibiltzen ikusteaz. Artzain espaziala izatea gure eskualdeko lanbide arrakastatsuen bihurtu da: lehen ardiok Gorbeia zakardietatik gidatzen ziran tokian, orain artalde kosmikoak zuzentzen dira Marteko belardi orbitaletatik. **15. orrialdea.**

Arteak izarretara bidean hasiko dauz jaiak

Beste urte batez, eta galaxien arteko ikasturte barria hasi baina lehentxoago, Arteak espero dauzan jaien metxa biztuko dau.

Girao dauz bakotxean amesten da: neonezko banderatoek etxeen artean mobiduten dira eta erraldoi kosmikoek Motorrak berotuten hasi dira. Tradizinoak agintzen dauen lez, txistulariek emanga deustle hasiera jaiari herrian zehar ibiliko dan kalejira bategaz, oraingoan konposa markaduko daben drone musikalez lagunduta. Auzokideak eta bisitariak prest dagoz tradizinoa eta futurismoa nahosten diran egunok blaitzeko, eta Arteo jaien unibersoaen erdiune bihurtuko da barriro be.

Kaixo Txosna ibiltaria

Jai batzordeak iraganri dau aurten azken belaunaldiak robot humanoidek egongo dirala herritarri serbiduten. Androide jator honeek herriko kaleetan barrena ibiliko dira barra ibiltariagaz. Espezialidadeen artean "kali-kosmikoa" dago, nebulosazko ardo hartiztuarekin eta antimateria arineko isatsagaz prestatutako kalimotxo intergalaktikoa. Giatenez, bi efektu dauz bermatuta: freskatu... eta plazaren inguruan orbitatu. Antolatzaileek neuriz eskatzea gomendatzen dabe, "Azkenean grabedade artifiziala desdoitu eta karporen ganean dantatzzen amaitu daiegunakoa".

Emakumeen Frontenis Txapelketaren 1000. edizinoa

2025ean herriko jaietan kirai apustu gisa hasi zanok, gaur 1000. edizinoa ospatuko dau. Belaunaldi belaunaldi, aipuek indarra mantendu dau planeten arteko tradizino bihurtu arte. Aurten ikusmin handia dago, finala Ane Agirrenen bir-bir-bir-bir biribaren eta Alara Aginagaren bir-bir-bir biribaren artean jakotuko balta. Udai pelotalekuak, hama holografikoekin eta energia kuantikoko pilotekin egokitua, inoiz ez lez dardara egingo dau Arteko urtekari kosmikoetan idatzita geratuko dan finalean.

Lehen meza elektronikoa Arratian

Aurtengo jaiak orain arte ikusi bako barri bat ekarriko dabe: aratiako abadeak planeten arteko lehen meza elektronikoa emango dau eta kantuek sintetizadore kosmikoekin nahastuta egongo dira. "Fedea ere dantzatzen da", baleztatzen dau parokoak, satona eta santuak 30n proiektatzeko pantaila holografikoak prestatuten dauzan bitartean. Eliztariek errealtate areagotuko betaurtekoekin jarraitu ahal izango dabe aspakizuna.

Alkarrizketea euren artean BEGI-
tuk ekarren albisteak komente-
tan zan. Eta heldu ziranean txis-
tularien albistera sartu genduzan
txistulari bi, gero heldu ziranean
fronteniseko txapelketara, jokalaria
bi.. eta holan.

Kuadrillako talde lan ederra!
Garai: Kuadrillako gazteenak 26
urte ditu eta zaharrenak 30. Lau
kinta diferente gagoz.

Goikoetxea: Txikitatik gara la-
gunak eta zelan denporea pasau
dan eta bakotxak bere ibilbide
profesionala edo ikasketakoa
egin dauanez, bakotxak bere
ekarpena egin dau: irakasleek,
desfilean, umeak zelan tratau; nik
zelan diseinatu; gero be badauka-
guz jantzariak...

Agirre: Karrozea egiteko be arki-
tektoa euki dogu.



Gida Baimenak
Animalia Arriskutsuak
Nautika
Arma lizentziak
Segurtasun pribatua
Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

INMOBILIARIA

Promozioak, pisuak,
etxeak, baserriak,
lurak, txaletak...

ARRATIAKO BAZTERRAK
ZEIN POLITAK DIREN!

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

Zure *kezkak* eta
proposamenak entzun
nahi ditugu

Azaroak 19
18:00 - 20:30
Lemoa

eskaneatu eta
parte hartu

Topaketak **AHALDUN**
NAGUSIAREKIN

Arratiako Berbalagun

AZAROA eta ABENDUA

IGORRE

AZAROAREN 20an
eta
ABENDUAREN 11n

Tailerra:

SUTEAN DENBORA GUTXI
ERABILIZ, OSASUNTSU JAN
(Txaramelarekin)

Izen-ematea beharrezkoa da.
Idatzi honako email honetara:

arratia_berbalagun@aek.eus

ARRATIA

AZAROAREN 3tik ABENDUAREN 31ra

IV. MIKROIPUIN TXAPELKETA

1. Gaia librea izango da eta lanak originalak izan beharko dira, lehenago aurkeztu gabeak.

2. 50-100 hitz bitarteko ipuinak izango dira.

3. Epaimahaia hurrengoek osatuko dute:
- Arratiako Berbalaguneko ordezkari batek.
- Kubulu Euskarategiko ordezkari batek.

4. Sari banaketa ekitaldia egingo da.

Bidali zure ipuina honako email honetara:

arratia_berbalagun@aek.eus





✓ EGOITZA

✓ EGUNEKO ZENTROA

IBARRA AUZOA, 17 DIMA
94 631 57 76

Norma
Libera-Care



ARRATIAKO EGOITZA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOIA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraitua eta pertsonalizatua



urte



urriak 23 - azaroak 13

Eskatu Nafarroa erdi
eta hegoaldeko produktuz
beteriko saskiak eta eman
balioaren %25 zonaldeko
euskalgintzari



errigora.eus

Arratiako Herri Eskola
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



TRONTZEA

Ruth Linaza lemoaztarrek Euskadiko Emakumezkoen Trontza Txapelketea jokatu dau

Erredakzinoa

Euskadiko Herri Kirol Federakundeak antolatuta, txapelketea hilaren 14an jokatu da, 18:00etan, Doneztebeko Ezkurra pelotalekuan. Ruth Linaza herri kirolari lemoaztarrek, Garbiñe Lopez de Uralde izango dau bikotekide.

Bost bikote ibiliko dira lehian txapela lortzeko: Ruth Linaza eta Garbiñe Lopez de Uralde; Uxue Ansoategi eta Aurkene Aroka; Iruñe Biurrun eta June Etxeberria; Sara Jimenez de Aberasturi eta Maite de Felipe Suso eta Ainhoa Iraizoz eta Maite Iraizoz.

Egin beharreko lana, pago enbor horizontalean 45 ontzako 15 ebaketa bertikal egitea da. Oin arte, 10 ebaketa izaten ziran eta

horrek baldintzatu leike lehia.

Igaz bigarren egin eta aurreko urtean irabazi arren, Linazak ez dauz Lopez de Uralde eta bere burua faboritoen artean ikusten, baina lehenengo aldia danez 15 ebaketa egin behar dirana, danak indartsu doazela eta nortzuk eroango daben txapela ez dagoala jakiterik uste dau Linazak. Ha-ta guzti be "Ainhua Iraizoz eta Maria Iraizoz dira faboritoak, igazko txapel-dunak dira eta Euskal Herriko txapel asko ditue".

Lemoaztarrarentzat txapela "ametsa" litzateke eta horretarako "gogor" dabizela entrenetan eta "indartsu" dagoala azaldu deutso BEGITU. "Gure eskuetan dagoan guztia egingo dogu. Behar txukuna egin geinke".



KIROLA

Kirola eta Jarduera Fisikoaren Astea egingo dabe Lemoan 13tik 16ra

Erredakzinoa

Lemoako Udalak Kirola eta Jarduera Fisikoaren Astea antolatuko dau zemendiaren 13tik 16ra, herriko kirol talde, alkarte eta kirolarien lana balioan ipinteko eta, bide batez, bizimodu osasuntsuak sustatzeko helburuagaz.

Ekimena Lemoako kirolariei egingo jakien omenaldiagaz hasiko da. Urteotan herria hainbat diziplinatan ordezkatzen ibili diranen esfortzua, ibilbidea eta lorpenak aitortuko dira bertan, tokiko talentuaren balioa lehen planoan ipinita.

Astean zehar, herritar guztiei zabalik egongo diran jarduerak antolatuko dira. Ongizate eta jarduera fisikoari buruzko berbaldia egongo

da, eta Lemoa Esku Pilota Taldeak eta Gazterleak-ek gazte eta nagusientzako proposamenak eskainiko dauz, kirol ohiturea sustatzeko eta komunidadegiroa indartzeko.

Amaitzeko, hilaren 16an, zapa-tuz, Lemoatx Trail ospatuko da, Ganzabal Mendi Taldeak urtero antolatzen dauan mendi lasterketa ezaguna. Ibilbideak Lemoako ingurunea zeharkatzen dau eta mendiko korrikalari ugari batzean ditu urtero.

Udaletik azaldu dabenez, aste honek "kirolaren, osasunaren eta herritar parte-hartzearen aldeko apustua" berresten dau.

Programearen zehaztasunak datozen egunotan emongo dabez jakitera.

MENDIA

Ia dorsal guztiak agortuta, dana prest hilaren 16ko IX. Lemoatx Trailerako

Erredakzinoa

Zemendiaren 16an jokatu da Lemoatx Trail IX. edizinoa Lemoan. Lasterketa bi dira, 25 eta 17 kilometroak, eta mendi marxa bi, 25 km-koa eta 8,5 km-koak. Lasterketa laburrean eta mendi marxa bietan agortu dira dorsalak. Parte hartuko daben izen ezagunen artean, Oihana Azkorbebeitia, Aner Zuluaga eta Gorbeia Suzienen Arratiako txapeldun izan diran Unai Intxaurraga eta Deiene Gurtubai dagoz.

Lasterketa luzeari, 25 kilometrokoari, Xabi Garcia "Utxuk" emongo deutso urtekerea azkorian, enbor bat ebagiz, Lemoako eskoletan. Hori 09:15ean izango da. Lehenago urtengo dira 25 km-ko mendi marxako partaideak 08:00retan; gero, 10:00etan, 17 kilometroko lasterketako partaideak eta atzenik, 10:45ean, 8,5 km-ko marxakoak.

Lemoako eskoletan, laster-



ketako jai giroa egongo da goiz osoan, musikea, txosnea, taloak eta mendiko materiala erosi ahal izateko salmahaia kaz.

PELOTEA

Finaleko ateetan geratu da Rekalde

Urri bigarrenaren 31n Xabi Rekalde eta Unai Amianok, biak aurten debutautakoak, B Serieko 4 ½ Txapelketako lehenengo finalaurrekoa jokatu eben. Etxean, Diman, eta frontoia bete-beteta bere alde egon arren Rekaldek ezin izan eutsan Amianori aurea hartu eta atzen honek lortu eban finalerako txartela, 22-18 irabazita.

Erredakzinoa

Lehenengo tantuak sakez Rekalderen alde jausi ziran baina gero, Dimakoak partidu ostean BEGITU onartu eutsanez, normalean egiten ez dauzan hutsak egin ebazan: "Gaur garrantzitsua izan da horreek ez egitea eta Amianok maila oso handia emon dau". Holan, Amiano aurretik mantenu zana partidu osoan eta atzenengo momentuetan Rekaldek tantu bakotxa gogor burukatu eta apur bat hurbildu bazan be, Iruñeko nagusitu zan.

Halanda be, Rekalde oso "ilusionauta" eta eskertuta agertu zan jasotako babesagaz: "Oso polita izan da danak hemen alkatutea, frontoian kriston ambientea egon da eta penea izan da irabazi ez izana". Oin "ikasten, entrenamenduetan dana emoten eta apurka-apurka mailaz igoten" jarraituko dau ala adietazo eban Rekaldek, "hurrengoan urrunago heltzeako".



Unai Amiano eta Xabi Rekalde.

FUTBOLA

Puntu banaketea gizonezkoen Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko derbian

Gizonezkoen Arratia Bk eta Lemoako Harrobik bana bardindu eben Urbietan zemendiaren 2an jokaturako derbia; andrazkoen Arratia Ak eta Bk irabazi egin ebezan Urbietan jokaturako euren partiduak eta gizonezkoen Arratia Ak galdu egin eban etxetik kanpo.

Erredakzinoa

Domeka eguerdian jokatu zan Urbietan gizonezkoen Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko derbia eta bana amaitu zan partidua. Lemoaztarrek aurreratu ziran 10. minutuan Iker Bikandiren golari esker; Arratia Bk 23. minutuan lortu eban bardinketea Aitor Leivaren golagaz. Zazpi jardunaldiren ostean Lemoako Harrobik 17 puntu ditu eta laugarren postuan dago eta Arratia Bk 7 puntu ditu eta hamabigarren postuan dago. Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 2an jokatu eban Urbietan Añorga taldearen kontra eta 5-1 irabazi eban. Sei jardunaldiren ostean 10 puntu ditu Arratia Ak eta laugarren postuan dago sailkapenean. Andrazkoen Arratia B taldeak 4-2 irabazi eban hilaren 1ean Urbietan Pauldarrak Bren kontra jokaturako partidua. Bost jardunaldiren ostean 12 puntu ditu Arratia Bk eta bigarren



Arratia B eta Lemoako Harrobiren arteko partidua Urbietan.

postuan dago. Gizonezkoen Arratia A taldeak zapatu arrastian jokatu eban lidertzan partidurik galdu barik dagoan Galdakao A taldearen kontra eta 4-1 galdu eban. Zazpi jardunaldiren ostean 13 puntu ditu Arratia Ak eta atzen partidu biak galdu ostean bosgarren

postuan dago sailkapenean. BEGITUEN edizinoa zarratzerako orduan datorren jardunaldirako partidu bakarra egoan zehaztuta noz jokatu dan. Andrazkoen Arratia Ak Lezaman jokatu dau lidertzan dagoan Athletic C taldearen kontra hilaren 8an, arrastiko 19:00etan.

ZIKLO-KROSA

Bost aldiz igon da podiumeko kajoi gorenera Quintanilla oingo denporaldian

Erredakzinoa

Urri lehenengoan ziklo-kros denporaldia hasi zanetik, ia lasterketa guztietan igon da podiumera, Manu Quintanilla, Master 50/60 kategoriako Igorreko ziklo-kros-laria: bost aldiz irabazi dau urrezko domina, eta hirutan, zidarrezkoa. Oin arteko atzen garaipena, zemendiaren 2an jokaturako Karrantzako Ziklo-krosa izan zan. Denporaldia irabaziz hasi eban Quintanillak urri lehenengoaren 29an Soriako Agredan, eta urrea eta zidarra tartekatzen joan da harrezkeroztik. Izan be, hurrengo astegienean Xixonen, zapatuko lasterketan, Las Mestas sarian, bigarren egin eban, eta hurrengo egunean, Trofeo Villa de Gijon ize-nekoa, irabazi. Hurrengo astegienean be, lasterketa bi izan ebazan, zapatuan, Medina de Pomarren

irabazi egin eban, eta domekan, Villarcayon bigarrena izan zan. Jokatu dauzan atzen lasterketa biak Espainiako Kopakoak izan dira, zemendiaren 1ean Amurion eta 2an Karrantzan. Amurion bosgarren egin eban eta Karrantzako

lasterketan ostera podiumeko gorenera igotea lortu eban. "Karrantzan lasterketa hasikerea nahiko lehiatua izan da, baina gero aurrera egitea lortu dot 30 segundoko aldea lortuta" adierazo eutsan BEGITURI lasterketa amaitu ostean.



Manu Quintanilla Elorrioko podiumean.

MARATOI TXIKIA

Youness Assehli eta Nerea Pujana igorreztarrek irabazi eben Arratiako Maratoi Txikia

Erredakzinoa

Youness Assehli Igorrekoagaz batera, igazko irabazlea Mikel Gil ugaoztarrak eta Iñigo Praderak osotu eben gizonezkoen podiuma. Nerea Pujana igorreztarren ostean, Gasteizko Maria Cano eta Onintze Petralanda igorreztarra sartu ziran helmugan, bigarren eta hirugarren eginda hurrengo

hurrengo urri bigarrenaren 26an, Arratiako Maratoi Txikiko Zeanuritik Igorrerako 11 km-ko lasterketan. Arteatik Igorrera lasterketea barriz, Xeber Muruak eta Ariane Canok irabazi eben. Mutilen podiuma Arantzazuko Unax Delgadok eta Beñat Etxebarriak osotu eben. Neskena barriz, Ane Etxeberriak eta Malen Nuñez del Blancok.



Iñigo Pradera, Youness Assehli eta Mikel Gil.



Onintze Petralanda, Nerea Pujana eta Maria Cano.



Unax Delgado, Xeber Murua eta Beñat Etxebarria.



Ane Etxeberria, Ariane Cano eta Malen Nuñez del Blanco.

KULTUREA

Historia eta feminismoa Laminetxe Gaztetxeko Erdibidean dinamikan

Erredakzinoa

Areatzako Laminetxe Gaztetxeak Erdibidean izeneko dinamikea ipini dau martxan. Lehenengo zatia urri bigarrenean hasi zan eta ekintza bi egin ostean, beste bi egingo dabez zemendian. Herrian beharrean dabizan hainbat eragile dira gaztetxera hurreratu-ten dabizen protagonistak.

Aurreko kursoko ebaluaketea egin ostean, gazteek ebatzi eben "gaztetxea herrira eta herria gaz- tetxera" hurreratzeko dinamika bat martxan ipintea Erdibidean izenpean. Holan herriko jenteagaz alkarlanean, hainbat ekintza anto- latuko dabez. Ziklo bi eukiko dauz

dinamikeak bata udagoienera da, eta bestea, zezeil-martian.

Erdibidean, lehenengo zatia
Urri bigarrenean, Areatzako Ha- rrera etxeko Zulay Gilek emon eban berbaldia gaztetxean eta Olatz Agirremotak, jantza he- rrikoi tailerra. Zemendian, beste ekintza bi egongo dira. Hilaren 8an, 12:30ean, gaztetxetik urten- da herritik poteoa egingo dabe gaztetxekoek, historialari batek herriko historia azaltzen deutsen bitartean. Zemendiaren 22an barriz, Arratiako Mugimendu Feministako kideak hurreratuko dira gaztetxera 18:00etan, euren burrukearen barri emoteko.



TELEBISTA

Go!azen seriearen estreinua ikusteko aukerea Areatza, Dima, Igorre eta Zeanurin

Erredakzinoa

Go!azen EITBren gaztetxoentzako telesailaren 12. denporaldiko lehenengo kapitulua Areatzan, Diman, Igorren eta Zeanurin proiektauko da. Zeanurin, hilaren 7an izango da arrastiko 19:00etan Kultur Etxean; Areatzan, 8an izan- go da arrastiko 18:00etan, uda- letxeko Areto Nagusian; Diman hilaren 9an, 17:00etan, eskolako kamaran eta Igorren, 12an arras- tiko 17:00etan Lasarte Aretan.

Go!azen, gaztetxoei zuzendu- tako ETB1eko telesail musika- la da. Udaleku zorrotz baten euskaldun gazteen talde baten ibilerak kontetan ditu. 2008an sortu zan EiTBko film musikal bat legez eta filmaren arrakastearen ondorioz, ETBk 2009an Go!azen

2.0 telesaila sortu eban. Gero, 2016an, telesaila berreskuratu eta oin arte, hamaika denporaldi egin ditue.

Aurten hamabigarren denporal- dia emitiduko dau ETB1ek, zemen- diaren 7tik aurrera. Halanda be, herri ugaritan egingo da aurre- treinaldia Udalerri Euskaldunen Mankomunidadeak antolatuta.



ERAKUSKETEA

Arte Plastikoen Mintegian egindako lanen erakusketea Igorren



Erredakzinoa

Zemendiaren 7tik abenduaren 10era, Igorreko Arte Plastikoen Mintegian parte hartu izandako ar- tisten erakusketa kolektiboa egon- go da ikusgai Kultur Etxeko Erakus- keta Aretan. Marisol Calzada, Arantza Pineda, Marian Daubagna, Pedro Pineda, Maite Artabe Ur- kiri eta Sandra Atutxaren lanak dagoz ikusgai. Ana Rosa Arroyo, Mintegiko formatzailea da *Plural* y

diversa erakusketako komisarioa. Inaugurazino ekitaldia, hilaren 7an, 18:30ean izango da Kultur Etxean. Bertan, umorezko bakarrizketea egingo dau Miren Lauzirikak.

Izenak berak adierazotako moduan, ugaria da erakusketea: koadruak lango ohiko formatuak dagoz, baina baita instalazioak, ikerketa prozesua erakusten daben lanak, obra bakotxagaz doazen testuak eta mintegian egindako lana jasoten dauan bideo bat be.

Ugariak be badira prozedurak eta materialak: pastela, orioa, akrilikoa, *collage*a, pigmentuak eta abar.

2009tik

Igorreko Arte Plastikoen Mintegia 2009tik egiten da urtero, baita bertan egindako lanen erakuske- tea be. Hasikeran, Ines Medina izan zan mintegiko irakaslea eta ondoren Arroyok hartu eban min- tegia aurrera eroateko ardurea- ren lekukoa.

"Mintegiaren helburua artelana sortzeako prozesuan laguntzea da, artista bakotxaren interes eta behar indibidualetan arreta ipiniz. Garatu gura dan teknikea, materialak, gaia, kontzeptua edo eduki plastikoa aukeratu daiteke. Persona beste lan-ildo dagoz, eta helburua da obrearen bidez baliabide propioak, bereizleak eta originalak azaltzea, hau da, norberaren benetakotasuna. Askatasun sortzailea erabatekoa da, 'nahierara' egindako mintegia dala esan leiteke" azaldu deutso BEGITURI erakusketako komisarioak.

KORUA

Kantika Koralak emonaldia eskainiko dau Zeanurin zemendiaren 8an



Erredakzinoa

Nazinoartean be izena daukan Leioako Kantika Korala umeen abesbatzak, kantaldia egingo dau zemendiaren 8an, 19:30ean, Zeanuriko Andra Mari eleizan.

Leioa Kantika Korala abesbatza 2001ean sortu zan Leioako Udal Musika Eskolan, Basilio Astulez zuzendariaren ekimenez. Konserbatorio horretan ikasten daben 10 eta 17 urte bitarteko gazteek osotuten dabe Kantika Korala eta musika estilo ugariak, errepertorio zabala eta koreografiak es- kaintzen ditu bere emonaldietan.

Abesbatzak nazinoarteko ibilbidea dauka eta sa- riak be jaso ditu.

ZINEKLUBA

Jean-Claude Lauzonen *Léolo* filma dakar Igorreko Zineklubak

Erredakzinoa

Zemendiaren 12an, 20:00etan, Jean-Claude Lauzo- nen *Léolo* 1992ko pelikulea ikusteko aukerea egon- go da Igorreko Lasarte Aretan. Pelikuleak sari ugari jaso ebazan 1992 eta 1993an eta betiko film kana- diar onenen rankingean bigarrena da.

Pelikulea gordina, bortitza eta poetikoa da eta Mon- trealen bizi dan Leo umearen istorioa kontetan dau. "Montrealeko auzo umil baten bizi da Léo Lauzon mu- tikoa, bizimodu zatar baten harrapauta. Gauero oroi- tzapenen, ametsen eta bere irudimen gainezkatuaren bidez iges egiten saiatzen da, baina familiaren errea- lidade gordinak eten egiten ditu beti bere fantasiak: familia osoaren hesteetako osasunagaz obsesionatua dagoan aita dauka, bildurrak jota bizi dan anaia kulturis- tea, nahasmentu mentalak dituen arreba bi, inork kasu askorik egiten ez deutsan aitita eta familiako mikrokos- mosean agintzen dauan ama" sinopsiaren arabera.



KORUAK

Arratiako Kоруak eta Veus de la Pоbla abesbatzak kontzertua emongo dabe Areatzan

Erredakzinoa

Ez da ohikoa Arratiako Kоруa entzun ahal izatea Agate Deunaren bezperan ez dan beste egun baten, baina aukerea egongo da zemendiaren 15ean, 20:00etan, emonaldia eskainiko dau-ta La Pоbla de la Llargako (Valentzia) Veus de Pоbla abesbatzagaz batera Areatzako eleizan. Kору bakotxak bere errepertorioko kantu batzuk kantauko ditu eta beste kantu bi batera egingo dabez.

Egun horretan, Arratiako Kоруak Agate Deunaren bezperan batutako dirua, 5.000 euro, Caritaseri emongo deutso. Agate Deunaren bezperan, Garazi Navasen zuzendaritzapean, Arratiako Kоруak 74.ez egin eban bere ibilbidea Arratiatik eta Arratiatik kanpo santearen koplak kantetan.



ANTZEZLANA

Itzulera, bidaia psikodeliko eta barregarria Igorreko Lasarte Aretoan

Erredakzinoa

Dejabu Konpainiaren atzen lana, antzerkiaren eta zinemaren arteko esperientzia bizia, Igorreko Lasarte Aretoan, 8an, 20:00etan.

Dejabu Konpainiak *Itzulera* aurkeztuko dau Igorreko Lasarte Aretoan, ikusleen aurrean zuzenean sortzean dan *road movie* lotsabako eta koloretsua. Hiru lagun —Ainara, Urko eta Miren— Mexikora abiatuko dira Etxepare Euskal Institutuaren beka bateri esker, diasporako euskaldunak alkarrizketatzera. Baina ustebako gertaera batek guztia irauliko dau eta ikuslea abentura ero eta delirante baten barruan sartuko da: autoen per-

sekuzinoak, bidaia haluzinogenoak eta chihuahua bat tarteko.

Autofikzino kutsuko lan honek nortasunaren bilaketa, sormenaren krisia eta gizakiaren zentzubakokeria jorratzen dau, irudi, musika eta argi hipnotikoen artean. Eszenan, David Aguilar zinegilea egongo da irudiak denpora errealean sortuz, eta beragaz batera Ander Fernandez, Andoni Mendizabal eta Barbara Rassen lanek osotzen dabe pieza estetiko eta esperimentala.

Itzulera ez da antzezlan arrunt bat: esperientzia errepikaezina da, non ikuslea bera be abentueraren parte bihurtzen dan.



JANTZEA

Jantza ikuskizuna egongo da hilaren 7an Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Olaia Valle jantzariak bere azken proposamen performatiboa aurkeztuko dau zemendiaren 7an, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.



Erredakzinoa

Jantza garaikidearen eta musikearen arteko alkarrizketa sakona da, publiko guztientzako.

Entre mi cuerpo y yo. Llorona llévame al río lanak gorputzaren mugak eta emozinoaren indarra aztertzen ditu jantza garaikidearen bidez, zuzeneko musikaz lagunduta. Olaia Valle bere

gorputzaren bidez kontetan dau barne bidaia intimo eta adierazkorra, erritmoaren eta arnasa partekatuaren bitartez.

Ikuskizunak jantza eta soinuaren arteko lotura estua jorratzen dau, ikuslea zentzumenen esperientzian barneratuz. Mobimentuak eta musikeak bat egiten dabe Llorona mitikoaren oihartzunean, dολουaren eta askapenaren arteko orekan.

DUNBA

Mundua aldatzen ikusten gabiz

Zeanuriko eskolako LH6. mailako ikasleak

Zeanuriko eskolako LH6ko ikasleak gara. Gure tristurea, haserre eta mina adierazo gura dogu. Izan be, Palestinako genozidioak han bizi diran umeak ekarten deuskuz gogora.

Bonbak, negarrak, gosea, odola, oihuak, egarria, hildakoak... Zelan bizi daiteke ume bat holan? Umeak kalean olgetan, eskolan ikasten eta etxean, familiaren babespean egon beharko lirateke.

Non dagoz ba umeen eskubiak?

Dirua, armak, poderea... Guri, umeoi, horreek guztiak bost axola! Hau da guretzat itxi gura dozuen mundua?

Guk munduko ume guztiak bakean eta lasai bizitea gura



dogu, itxiko gaituzue?

Genozidio hau amaitu egin dala esan deuskue, baina, zer gertatuko da oin hango umeakaz?

Gu, umeok, etorkizuna gara eta etorkizun polita irudikatzen dogu. Danontzako mundu koloretsua!

Amaitzeko, Palestinako umei bultzada emon eta gure babes heldu arazo gura deutsegu eta, horretarako, bertso bat kantauko deutsegu.

Gure tristura eta mina adierazi bonbak botatzen ezin ezer irabazi etorkizuna gara jolastu ta ikasi mundu koloretsuan gure dogu bizi.

Maite zaituegu!



AGENDEA

ZEMENDIAK 3
ARANTZAZU

Hilaren 3ra arte aurkeztu daitekez argazkiak, III. Argazki Lehiaketarako *idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org* helbidera bialduta. Gaia: Arantzazuko arbolak eta basoak.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Udalak ugerlekuetako Aldamin taberna kudeatzeko eskaintzak jasoteko epea zabalik. Urte biko kontratua, beste urte batez luzatzeko aukereagaz. Errentearen gitxienekoa 130 euro lehen urtean eta 250 euro bigarrenetik aurrera. Dokumentuak udaletxean aurkeztu daitekez hilaren 21era arte. Online aurkezpena, 23ra arte, lotura honetan: *https://labur.eus/Aldaminjatetxea*.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

ARRATIA

Abenduaren 31rarte bialdu daitekez lanak IV. Mikroipuín Txapelketarako *arratia_berbalagun@aek.eus* helbidera. Gaia librea da, 50-100 berba bitarteko ipuinak.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

Bonodenda kanpainea hilaren 23ra arte martxan herriko 30 komertziotan.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

18:00etan, mobikorren auzia familientzako gaiaren inguruko berbaldi/tailerra *Sare sozialen bihotzean: zer dugu benetan esku artean?* Telmo Lazkanoren eskutik Lasarte Aretoan.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Lemoatx Trail martxa zein lasterketetarako inskripzioa egiteko aukerea zabalik hilaren 9ra arte *labur.eus/Lemoatxtrail* helbidean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Podologoa hilaren 7an. Izena emoteko orria udaletxean dago.

ZEANURI

Batxilerr eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 15era arte, baserri eta etxeetarako ke detektagailuak jaso daitekez udaletxean.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

ZEMENDIAK 4
BEDIA

16:30etik 19:30era, zemendiaren 14ra arte, jarduera desbardinetarako izen-emoteak Bebetekan: urtekerea Zumarragako Gabonetako Azokara (abenduak 13), urtekerea El Pobaleko burdinolara Olentzero eta Mari Domingi ikustera (abenduak 20), urtekerea Cartesera (abenduak 26), urtekerea Bilboko Gabonetako Umeen Parkera (abenduak 29), gazteentzako urtekerea Bilboko Scape Roomera (urtailak 2), Gabonetako Postalen Lehiaketea eta ikastaroetako plazak beteteko aukerea: *Korua, Saltsa, Batzen-kido, Yoga, Lagunarteko digitalizazioa* eta *Sukaldaritza*.

Zemendiaren 21era arte, birziklautako materialakaz egindako Gabonetako Zuhaitzen Lehiaketea.

IGORRE

18:00etan, Gabonen inguruko batzar irekia.

Abenduaren 16ra arte, Kultur Etxeko bazkide txartela merkeago egiteko

epea zabalik. Lagun txartelaren urteko banakako kuotea 30 eurokoa da. Familiakoa 25 euro kide baktxa eta 20 eurokoa 14 urtetik beherakoentzat.

ZEMENDIAK 6
LEMOA

19:00etan, Ahoztar Zelaietaren *El Pradalismo. El ocase de los JoBuBi* liburuaren aurkezpena Karabie Gaztetxean.

ZEMENDIAK 7
DIMA

19:00etan, Harrera alkartearen aurkezpena Abaroa Aretoan.

IGORRE

10:00etatik 20:00etara, AMEk eta Gurutze Gorriak antolatuta, Arratia Market Kultur Etxean. Bizkaiko saltokia eta DJa.

18:30ean, *Plural y diversa* erakusketearen inaugurazino ekitaldia, Miren Lauzirikaren umorezko bakarrizketeagaz. Marisol Calzada, Arantza Pineda, Marian Daubagna,



Pausa zirku eta jantza
ikuskizuna Igorren hilaren 14an

Nimú konpainiak *Pausa* izeneko zirku eta jantza ikuskizun poetikoa eskainiko dau zemendiaren 14an, 18:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan. Familia osoarentzako proposamen magikoa da, umorea eta irudimena buztartzen dituana.

Pailazo bat eta maleta batzuk. Holan hasten da Nimú Cía.-ren *Pausa*, zirkua eta jantzea batzean dituan bidaia poetiko eta dibertigarria. Testurik barik, mobimentuaren eta musikearen bidez kontetan da istorioa: Xandra Gutiérrezz pailazoak eta Ivan Casado biolontxelo-joleak alkarregaz sortzean daben giro magiko eta hunkigarria.

Pausa 50 minutuko esperientzia bisual eta emozionala da, ume zein helduek gozatzeko modukoa, umorea, sensibildadea eta poesia nahastuz.

Pedro Pineda, Maite Artabe Urkiri eta Sandra Atutxaren lanak abenduaren 10era arte Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. Komisarioa: Ana Rosa Arroyo.

LEMOA

20:00etan, jantza garaikidea, Olaia Valleren *Entre mi cuerpo y yo. Llorona llévame al río*. Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Podologoa hilaren 7an. Izena emoteko orria udaletxean dago.

ZEANURI

19:00etan, *Go!azen* telesailaren 12. denporaldiaren lehen atalaren proiektzioa Kultur Etxean. Krispetak egongo dira.

ZEMENDIAK 8
AREATZA

09:30ean, Uparan Areatzako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta Bilboko Portura eta Meatzaritzaren museora txangoa.

12:30ean, Laminetxe Gaztetxeak antolatuta, poteo historikoa herriko historia ezetuteko. Gaztetxetik urtenda.

18:00etan, *Go!azen* telesailaren 12. denporaldiaren lehen atalaren proiektzioa. Udaletxeko Areto Nagusian.

BEDIA

San Martin jaia. 09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren oroimenez plazatik urtenda; 10:30ean, txitxi-burduntzia Bediako trikitilari gazteek girotuta; 12:00etan, mezea San Martinen ermitan eta 12:45ean, bola-jokoa eta zozketea.

IGORRE

20:00etan, Dejabu konpainiaren *Itzulera* antzezlanana Lasarte Aretoan.

UBIDE/ZEANURI

Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunitatearen XIII. Zeharkaldia. 09:00etan, autobusa Zeanuritik Ubidera; 10:00etan, urtekerea Ubideko plazatik; 13:00etan, Zeanuriko eta Ubideko udalbatzen kontu emotea Zeanuriko udaletxean; debaldeko pintxo-potea ibilbidea egin dabenentzat Zeanuriko tabernetan.

ZEANURI

19:30ean, Kantika Korala Andra Mari eleizan.

ZEMENDIAK 9
DIMA

17:00etan, *Go!azen* telesailaren 12. denporaldiaren lehen atalaren proiektzioa. Eskolako kamaran.

IGORRE

17:00etan, zinea, *El colegio de animales mágicos*; 19:30ean, *Maspalomas* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, XXVI. Nekazaritzako Elikagaien Azokea; 13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta, azkolarien erakustaldia.

ZEMENDIAK 10
BEDIA

18:00etan, *Ze ekintza gura dozu eratutea Udalak?* batzar parte-hartzailea Bebetekan.

IGORRE

18:00etan, mobikorren auzia familientzako gaiaren inguruko berbaldi/tailerra *Praktikan nola landu*

gai hau etxean? Telmo Lazkanoren eskutik Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 11
ARTEA

19:00etan, *Artea. Modu aktiboan parte hartu*, tailer parte-hartzaile irekia Kultur Etxeko areto nagusian.

ZEMENDIAK 12
IGORRE

17:00etan, *Go!azen* telesailaren 12. denporaldiaren lehen atalaren proiektzioa Lasarte Aretoan.

20:00etan, Igorreko Zinekluba *Leolo* (zuzendaria: Jean-Claude Lauzon) Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 13
IGORRE

Arrastian zehar, VI. Azoka Solidarioko jostailu, liburu, motxila, mozzorro eta bestelakoen bilketea Lehendakari Agirren.

LEMOA

Kirola eta Jarduera Fisikoaren Asteko ekintza.

ZEMENDIAK 14
DIMA

18:00etan, Pala Txapelketea frontoi txikian.

IGORRE

19:30ean, Haginke taldearen aurkezpena eta mojitadea. *Zer da kuir izitea Arratien?* berbaldia Axular Herriko Tabernan. Haginkeren kamisetea eskatu dabenek berau batzeako aukerea izango dabe.

LEMOA

Kirola eta Jarduera Fisikoaren Asteko ekintza.

ZEMENDIAK 15
AREATZA

20:00etan, Arratiako Korua eta Veus de la Pobla abesbatzaren kontzertua eleizan.

IGORRE

Kiñu Gaztetxearen XII. urteurrena. Rokupa jaialdia. 15:00etan, baba-jana gaztetxean; 19:00etan, Siriusly taldea Kukuma tabernan; 20:30ean, Kutter taldea Haizea tabernan eta 22:00etan, Barrrk taldea Axular Herriko Tabernan; ostean, DJ Agata Lagata.

LEMOA

Kirola eta Jarduera Fisikoaren Asteko ekintza.

ZEMENDIAK 16
IGORRE

17:00etan, zinea, *Sablehotrtz kapitaina eta Greleko kondesa*; 19:30ean, *Una batalla tras otra* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Lemoatx Trail. 08:00retan, 25 km-ko mendi martxearen urtekerea; 09:15ean, 25 km-ko lasterketea; 10:00etan, 17 km-ko lasterketea; 10:45ean, 8 km-ko martxea. Eskoletatik.

ZEMENDIAK 17
BEDIA

17:00etatik 19:30era, Bardintasunaren Aldeko Zineforuma 18 urtetik gorako andrentzako eskoletan.

KOMIKI A

**Iman
Olatu**



IRAGARKI LABURRAK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

SALTZEAN DODAZ

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar
batentzako gela bat behar dot alokairuan.

Telefona: 642 912 390.
MAHAIA OPARITZEN DOT
 Eskola adineko umeentzako mahai aproposa
 oparitzen dot. Telefona 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU
Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak

euskeraz jasoteko nonoren bila nabil
abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz,
gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz
zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

SALTZEAN DOT

Ezkaraiko aparadore bat, 1,50eko mahai
eta aulkiak, haretx egurrezkoak. Oso egoera
onean. Banan-banan erosi ahal dira.
Interesdunek deitu 657 777 542 telefonora

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten
dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu
Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528
telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com
helbidera.

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako
EHUko ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak
konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu,
trukea egin, behar edo
behargin bila bazagoz, bidali
asko jota 25 berbako mezu bat
begitu@begitu.eus helbidera.
Mezuak doban dira.**

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Errigorak emondako produktuen otzara bana.

2
Igorreko Kultur Etxeak
emondako bina sarrera
Dejabu Konpainiaren
Itzulera antzezlanerako.

Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,
zozketetan
sartuko zara.
BEGITUk 23
urte eta
ehundaka
lagun.

Jon Durana (Areatza)
Argiñe Larrea (Dima)

Saioa Arana (Lemoa)
Nuria Korta (Igorre)



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
-
SABINO ARIANA 38
IGORRE
-
TUF. 94 631 92 00



 **GORBEIALDE**
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

**Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
*inigoirua@begitu.eus***

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Platzen, dozen, jabetza

Solmentan zein alokatu

Lurrik (erakiteko, landak, basak...)

Etebidezik (pavak, baserriak, etxak...)

Garaioak

Loak komertzialak

Pabiloiak...

Balnearioak

Belak, dozen, proiektu

Irakin berrik erakiteko

Erreforma

Arkitektura-proiektuak

Batze diseinua

CEE eta IEE-ak

Hirigintza aholkularitza

Negozioak irekitzeko

kudeaketa



arratia
INMOBILIARIA

Lizentziadun Agente 25. lantza - Agente
Negozioa - 94.420.51.94 - 424.96.20.31
Bilbo - arratia@arratia.com
arratia - 471.792.117
www.arratia.com

Kili~Kili
Amiga eko Puertorricana

Lehendakari Agnès 10 - IGORRE (Bilakola)
Tel: 94 473 63 61

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho

pintura lanak
 Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia
 ☎ 94-673-70-87
 ☎ 609-79-40-54

Olaetxe
Ondakuntza

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen giberua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tt 94.657.70.03 • olaetxeoptika@hotmail.es


ASESORÍA
Gorbeialde
Juridikoak · Fiskalak · Lanekoa · Kontabilitateak
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnos. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 85
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

 **Smurfit Kappa**
CENTRAL FORESTAL



Central Forestal (Smurfit Kappa), “la papelera”, ibilbide luzeko enpresa gara, eta basogintzan kaudimen handia dugu.

Koniferetako egur mota guztiak erosteko interesa dugu (apeak eta zerrarako zurgaiak), zutik zein botata, baita entresaka zein matarrasetan ere.

Egurra saltzekotan bazabiltza, zalantzarik gabe jar zaitez harremanetan Eukenerekin, **669 41 97 68 telefonoan, atsegin handiz bisitatuko zaitu eta gure eskaintzarik onena prestatuko dizu.**

eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es



www.smurfitkappa.com